

Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentak % 3,8 igo dira 2025eko hirugarren hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmentak % 1,1 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2025eko hirugarren hiruhilekoan, salmentak % 3,8 igo dira, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren eraginak zuzendua eta prezio konstanteetan. Salmentak, urte artean, % 3,1 igo dira, gasolindegia kontuan hartu gabe.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmenta-indizea % 1,1 igo da 2025eko hirugarren hiruhilekoan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

2024ko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoetako salmentak % 3,0, % 3,3 eta % 10,5 igo dira, hurrenez hurren, *Elikaduran*, *Gainerako produktuetan* eta *Automobilgintzarako erregaiaren* sektorean.

2025eko bigarren hiruhilekoaren aldean, urtaro-eraginak kenduta eta prezio konstanteetan, *Automobilgintzarako erregaiaren salmentek* eta *Gainerako produktuen salmentek* % 1,7ko hazkundera izan dute eta *Elikagaien salmentek* % 1,2koa.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2025/III

	Prezio finkoak		
	t/t-4	t/t-1	At/At-4
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,8	1,1	3,4
Araba/Álava	5,9	2,0	5,2
Bizkaia	3,7	1,1	3,0
Gipuzkoa	3,0	0,8	3,0
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	3,0	1,2	2,7
Elikagaien saltoki espezializatuak	-3,2	-0,1	-1,7
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	5,3	2,3	4,3
Gainerako produktuak	3,3	1,7	2,8
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	1,6	0,2	1,8
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	1,9	0,5	3,3
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	9,5	1,8	6,6
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	1,7	0,5	-0,3
Automoziorako erregaia	10,5	1,7	10,0
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	3,1	1,4	2,8

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2025eko Azaroaren 7a

Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea

Elikaduraren sektorean, 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, salmentak % 5,3 hazi dira *Elikagaiak, edariak eta tabakoa nagusi diren merkataritza ez-espezializatuan* (batez ere supermerkatuak eta hipermerkatuak). *Elikaduran, edarietan eta tabakoan espezializatutako merkataritzan* (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak eta abar), aldiz, salmentek behera egin dute % 3,2.

Gainerako produktuen salmentei dagokienez, *Pertsonen ekipamenduan espezializatutako* sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higienekoak) salmentak % 1,6 hobetu dira; *Etxeko ekipamenduan espezializatutako* sektorean (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak barne) % 1,9; *Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako* sektorean (besteak beste, kirol-gaiak, jokoak edo jostailuak) % 9,5 eta, azkenik, *Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuetan* (korrespondentzia edo Internet) % 1,7.

2025eko hirugarren hiruhilekoko txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak, urte arteko igoera izan du hiru lurralde historikoetan: Araban indizea % 5,9 igo da, Bizkaian % 3,7 eta Gipuzkoan % 3,0.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten bilakaera ere positiboa izan da hiruretan: Araban % 2,0, Bizkaian % 1,1 Gipuzkoan eta % 0,8 igo dira.

2025eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AE osoan, txikizkako merkataritzaren sektorean landunen kopuruak % 1,3 egin du gora aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean. 2025eko bigarren hiruhilekoaren aldean, ordea, enplegua % 0,8 hazi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatzen dira, eta hil arteko aldakuntzak urtaroen eraginak kendutako serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % **98,48ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62